

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo Industrialdeko SAUI-1 eta 3 Sektorea onik zaintzeko hirigintza entitate laguntzailearen estatutuen aldatetari

Aguraingo Udalak, 2025eko abenduaren 3ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, behin betiko onartu zuen Agurain industrialdeko SAUI-1 eta 3 sektorea izeneko kontserbazioko hirigintza erakundearen estatutuetako artikulua hauek aldatzea, eta honela idatzita geratu zen:

21. artikulua. Izendapena

“Idazkaria eta diruzaina batzarrak izendatuko ditu, hiru urterako, eta epe berdinetan luzatu ahal izango da izendapena, mugarik gabe. Batzar orokorrak besterik erabakitzen ez badu, diruzainaren figura Araba Garapen Agentzia SAren gerentziak izango du. Kudeatzailerik ez badago, Araba Garapen Agentzia SAko lehendakaria izango da.”

23. artikulua. Gerentzia

“Araba Garapen Agentzia, SAko gerentziak kudeatzailletza bat izango du, eta haren izendapenak iraupen mugagabea izango du. Nolanahi ere, edozein unetan kargutik kendu ahal izango da, batzar horrek kontserbazio kuoten bi heren ordezkatzan dituzten jabeen gehiengoz onartutako erabaki baten bidez. Kudeatzailerik ez badago, Araba Garapen Agentzia SAko lehendakaria izango da.”

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Bestela, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da erabaki hau hartu duen organo beraren aurrean, hilabete bateko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera. Bestalde, organoaren berariazko edo ustezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da aipatutako epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesteko ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik zenbatuta, edo sei hilabeteko epean, errekurtsuaren ustezko ezespena gertatu ondorengo egunetik zenbatuta.

Agurain, 2025eko abenduaren 17a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR